En caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal del/de la Presidente y de su suplente, la presidencia será asumida por el/la vocal que se nombre para dicha suplencia y, en su ausencia, el/la vocal de mayor edad entre los miembros del Tribunal Calificador.

La sustitución del Secretario o Secretaria, en casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte al/a la mismo/a y a su suplente, recaerá en cualquier otro de los miembros del Tribunal Calificador, elegido por acuerdo mayoritario de este.

EK\CV GAO-I-2022-05042

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz.

Hauta-prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

Aholkulari espezialistak erabili ahal izango ditu epaimahaiak, balorazioaren faseetako batean parte hartzeko.

*Zortzigarrena. Lehiaketa-oposizioa.*

Hautaketa prozesuak bi fase ditu:

1. Lehen fasean, oposizio fasean, lehen atalean aipatutako probak burutuko dira. (80 puntu).

2. Bigarren fasean, lehiaketaldian, bigarren atalean merituak baloratuko dira. (30 puntu).

1. fasea. Probak.

Ondorengo probak izango ditu eta guztira 80 puntu baino gehiago ezin izango da lortu.

1) Lehen proba (derrigorrezkoa eta baztertzailea): Ezagutzari buruzko ariketa teoriko-praktikoak.

Idatziz egin behar dira ariketa teoriko edo/eta teoriko-praktiko batzuk, lanpostuaren eduki funtzionalarekin eta/edo I. eranskineko gaiekin lotutako jakintzari buruz.

Epaimahaiak ariketa jendaurrean aurkeztea erabaki dezake.

Proba honen balioa gehienez 30 puntukoa izango da puntukoa, eta gutxienez 15 eskuratu beharko dira prozesutik baztertua ez izateko. Gainera ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren % 50a atera beharko da ariketa gainditzeko.

2) Bigarren proba (derrigorrezkoa eta baztertzailea): Proba psikoteknikoak eta elkarrizketa pertsonala. Guztira 50 punturekin.

2.1) Proba psikoteknikoak. Hautagaiak lanpostuaren profil profesional eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzera bideraturiko gaitasun edo/eta nortasunari buruzko proba psikoteknikoak egitea izango da. Proba hauek elkarrizketa ere izan dezakete.

Proba psikotekniko hauek gaitasunak eta jarrerak zehazteko dira eta bete beharreko lanpostuaren profilerako egokitasun maila ebaluatzeko, bereziki, agintearekin zerikusia duten gaitasunak eta ofizial kategoria honi dagozkion polizia eginkizunetarako egokitasuna.

Bigarren ariketa honen lehen atalari hogeita hamar (30) puntu emango zaizkio gehienez, eta guztira hamabost (15) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

2.2) Elkarrizketa. Izaera pertsonaleko elkarrizketa bat eta/edo talde dinamika bat egingo da, aztertzeko profil profesionalarekiko egokitasun maila.

Proba honen balioa gehienez 20 puntukoa izango da eta guztira hamar (10) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak, IVAPek edo enpresa espezializatuak kanpo zerbitzu bitartez burutuko ditu proba hauek.

El Tribunal Calificador actuará con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsable de garantizar su objetividad. Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico, resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de las Bases y adoptará los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo del presente concurso-oposición, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en aquellas.

En cualquier momento del proceso selectivo, si el Tribunal Calificador tuviera conocimiento de la existencia de alguna persona aspirante que no cumpla alguno de los requisitos exigidos en la presente convocatoria, previa audiencia de la persona interesada, deberá proponer al órgano competente la exclusión de la misma, comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas por la aspirante en su solicitud.

El jurado podrá servirse de personas asesoras especialistas, que podrán participar en alguna de las fases de valoración.

*Octava. Concurso-Oposición.*

El proceso de selección consta de dos fases:

1. En la primera fase, fase de oposición, se realizarán las pruebas indicadas en el apartado primero. (80 puntos).

2. En la segunda fase, fase de concurso, se valorarán los méritos en un segundo apartado. (30 puntos).

1.ª fase. Pruebas.

Constará de las siguientes pruebas, obteniéndose un máximo de 80 puntos.

1) Primera prueba (de carácter obligatorio y eliminatorio): Ejercicios teórico-prácticos sobre conocimiento.

Consistirá en realizar por escrito ejercicios teóricos y/o teórico-prácticos sobre el conocimiento relacionado con el contenido funcional del puesto y/o con los temas del anexo I.

El Tribunal podrá acordar la presentación en público del ejercicio.

El valor máximo de esta prueba será de 30 puntos y será necesario obtener un mínimo de 15 puntos para no ser excluido/a del proceso. Además, para superar el ejercicio se deberá obtener el 50 % de la puntuación máxima de cada ejercicio.

2) Segunda prueba (de carácter obligatorio y eliminatorio): Pruebas psicotécnicas y entrevista personal. Puntuación total: 50 puntos.

2.1.) Pruebas psicotécnicas. Consistirá en la realización de una serie de pruebas psicotécnicas de aptitudes y/o de personalidad, encaminadas a valorar la adecuación de las personas aspirantes al perfil profesional del puesto y a las funciones a desempeñar. Las pruebas podrán incluir una entrevista.

Estas pruebas psicotécnicas servirán para determinar aptitudes y actitudes y evaluar el grado de adecuación al perfil del puesto a cubrir, en particular, las competencias relacionadas con el mando y la adecuación a las funciones policiales correspondientes a esta categoría de oficial.

Este segundo ejercicio se calificará sobre un máximo de treinta (30) puntos, siendo necesario obtener en total un mínimo de quince (15) puntos para superar el mismo.

2.2) Entrevista. Se realizará una entrevista de carácter personal y/o una dinámica de grupo, para analizar el grado de idoneidad respecto al perfil profesional.

El valor máximo de esta prueba será de 20 puntos siendo necesario obtener en total un mínimo de diez (10) puntos para superar el mismo.

Estas pruebas serán realizadas por la Academia Vasca de Policía y Emergencias, por el IVAP o por una empresa especializada mediante servicio externo.

EK\CV GAO-I-2022-05042

2. fasea. Merituak (30 puntu gehienez).

Meritu hauen inguruko ziurtagiriak deialdi honetan parte hartzeko eskaerarekin batera aurkeztuko dira eta gainera eskabide orrian zerrendatu beharko dira kontuan izateko.

— Ez dira inola ere baloratuko aurkeztu ez diren merezimenduak eta behar bezala egiaztatu ez direnak.

— Merituak baloratzeko, gehienezko erreferentzia izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna.

Meritu fase hau irizpide hauen arabera baloratuko da:

1) Lan eskarmentua:

Gehienez 20 puntu emango dira atal honetan. Baloratuko da Udaltzaingoan ondorengo kategoriatan burututako lan postuetan ziurtatutako lan eskarmentua, gutxienez hilabete osorik eta jarraian egindako esperientzia tarteak baloratuko direlarik.

Baloratuko dira, halaber, parte hartzeko eskatutako gutxieneko baldintzaren gainetik egindako esperientzia-denborak (ez da baloratuko baldintza gisa eskatu den gutxieneko esperientzia, agente kategorian egindakoa hartuko delarik aintzat eragin hauetarako beti ere behar den denbora bete artekoa):

— Agente lehena: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

— Agentea: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko. Gehienez,10 puntu.

Egiaztatzeko, egiaztagiria aurkeztu beharko da Egiaztagiria jatorrizko herri-administrazioetako eta erakundeetako funtzio publikoko, pertsonaleko, giza baliabideetako edo antzeko zuzendaritzek egin beharko dute.

2) Prestakuntza eta hobetze ikastaroak:

Gehienez 2 puntuz baloratuko da gai hauei buruzko ikastaroak gainditu izana –betiere diploma edo egiaztagiri bidez ziurtatuta baleude–: lanpostuarekin esklusiboki eta zuzenean lotuta dauden prestakuntza eta hobetze ikastaroak, genero berdintasun eta emakumeen ingurukoak, keinu-hizkuntzari buruzkoak, Zuzenbide, Herritarren Segurtasun eta Babes Zibilari buruzkoak.

Gehienez ere 2 puntu eskuratuko dira, irizpide hauen arabera:

— 10 ordu arteko ikastaroa: 0,05 puntu.

— 10 eta 30 ordu bitartekoa: 0,10 puntu.

— 31 eta 60 ordu bitartekoa: 0,20 puntu.

— 61 eta 100 ordu bitartekoa: 0,50 puntu.

— 100 eta 150 ordu bitartekoa: 0,75 puntu.

— 150 eta 200 ordu bitartekoa: 1,0 puntu.

— 200 eta 250 ordu bitartekoa: 1,50 puntu.

— 250 ordu baino gehiago: 2,00 puntu.

Ikastaroen orduak egiaztatzen ez badira, ez dira baloratuko.

Bakar-bakarrik kontuan izango dira 2016tik aurrera jasotako ikastaroak.

3) Euskara: 4. HEren maila ziurtatzea (C2) 4 punturekin baloratuko da.

4) Titulazio akademikoak:

Ez da baloratuko lortu nahi den kategoriara sartzeko erabilitako titulazioa.

Atal hau gehienez 2 puntu baloratuko da. Betiere, titulazioak Kriminologia, Zuzenbide, Herritarren Segurtasun, Babes Zibil, administrazio/antolaketa arlokoa edota lanpostuaren zereginekin zerikusi zuzena izan beharko du.

2.ª fase. Méritos (hasta 30 puntos).

Para que los méritos sean tenidos en cuenta deberán estar indicados en la lista del impreso de solicitud y sus certificaciones deberán haber sido presentadas junto con dicha solicitud de participación en la presente convocatoria.

— En ningún caso se valorarán los méritos no presentados ni debidamente acreditados.

— Para la valoración de los méritos, se tomará como referencia máxima la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

La fase de méritos se valorará de acuerdo con los siguientes criterios:

1) Experiencia laboral:

En este apartado se concederá un máximo de 20 puntos. Únicamente se valorará la experiencia laboral acreditada en puestos de trabajo desempeñados en las siguientes categorías en la Policía Municipal, valorándose como mínimo los intervalos de experiencia realizados durante un mes completo y continuado.

Se valorarán así mismo los periodos de experiencia que sobrepasen el requisito mínimo exigido para participar (no se valorará la experiencia mínima exigida como requisito, teniendo en cuenta a estos efectos el periodo realizado en la categoría de agente hasta completar el tiempo necesario):

— Agente primero/a: 0,15 puntos por mes.

— Agente: 0,10 puntos por mes. Máximo, 10 puntos.

La acreditación se realizará mediante presentación de certificación, que deberá estar expedida por las direcciones de Función Pública, Personal, Recursos Humanos o similares de las Administraciones Públicas e instituciones de procedencia.

2) Cursos de formación y perfeccionamiento:

Se valorará hasta un máximo de 2 puntos haber superado cursos sobre las materias siguientes –siempre que se acrediten mediante diploma o certificación–: cursos de formación y perfeccionamiento relacionados exclusiva y directamente con el puesto de trabajo, sobre igualdad de género y mujeres, sobre lenguaje de signos, sobre Derecho, Seguridad Ciudadana y Protección Civil.

Se obtendrá un máximo de 2 puntos, de acuerdo con los siguientes criterios:

— Curso hasta 10 horas: 0,05 puntos.

— Curso entre 10 y 30 horas: 0,10 puntos.

— Curso entre 31 y 60 horas: 0,20 puntos.

— Curso entre 61 y 100 horas: 0,50 puntos.

— Curso entre 100 y 150 horas: 0,75 puntos.

— Curso entre 150 y 200 horas: 1,0 puntos.

— Curso entre 200 y 250 horas: 1,50 puntos.

— Más de 250 horas: 2,00 puntos.

Si no se acreditan las horas de los cursos, estos no serán valorados.

Únicamente se tendrán en cuenta los cursos realizados a partir del 2016.

3) Euskera: La acreditación del PL 4 (C2) se valorará con 4 puntos.

4) Titulaciones académicas:

No se valorará la titulación que haya sido exigida para el acceso a la categoría a la que se aspira.

Este apartado se valorará sobre un máximo de 2 puntos. En todo caso, la titulación deberá ser de Criminología, Derecho, Seguridad Ciudadana, Protección Civil, área de administración/organización o estar directamente relacionada con las funciones del puesto de trabajo.

EK\CV GAO-I-2022-05042

— Doktore titulazioak: 1 puntu.

— Lizentziatu, gradu edo titulazio baliokideak: 1 puntu.

— Diplomatura edo titulazio baliokideak: 0,5 puntu.

— Goi mailako teknikari titulua (beti ere ez bada parte hartzeko titulu gisa alegatua izan): 0,25 puntu.

*Bederatzigarrena. Epaimahaiaren proposamena.*

Hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa meritu eta probetan (betiere hauek gainditu gero) eskuratutako puntuazioaren batuketatik ondorioztatuko da. Kalifikazio honek zehaztuko du lehentasun hurrenkera.

Ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa bukatutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak lehiatzaileen zerrenda argitaratuko du –guztira ateratako puntuazioaren ordenan– Iragarki Taulan eta udal web-orrian, eta bost laneguneko epe bat emango du erreklamazioak aurkezteko epaimahairi.

Ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa egin ondoren, Epaimahai Kalifikatzailearen akordioz behin betiko emaitzak onartu eta udalaren iragarki oholean eta web orrian argitaratuko dira, lehiakide guztien zerrenda puntuazio osoaren hurrenkeraz. Ondoren, epaimahaiaren aurrean erreklamazioak jartzeko 5 laneguneko epea zabalduko da.

*Hamargarrena. Erreklamazioak ebaztea eta agiriak aurkeztea.*

Erreklamazioak ez baleude, argitaratutako emaitzak behin betikotzat joko dira. Erreklamazioak baleude, ebatzi eta argitaratu egingo ditu epaimahaiak, eta jarraian akta Alkate-udalburuari bidaliko dio, proposatuz praktiketako funtzionario izenda dezan lehen postuan gelditu den pertsona. Era berean, akta horretan bertan agertuko dira, puntuazioaren hurrenkeran, ariketa baztertzaile guztiak gainditu dituzten hautagai guztiak.

Hala ere, izendapena baino lehen, lehen tokian gelditu den pertsonak udaletxeko pertsonal sailean aurkeztu beharko du, behin betiko emaitzak argitaratu eta biharamunaz geroztik 15 laneguneko epean, prozesu honetan parte hartzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatzen duen dokumentazioa, hirugarren oinarrian aipatu bezala.

Aipatutako epealdian, gaindiezina den egoera larri batean izan ezik, proposatutako pertsonak dokumentazioa ekarri ez badu edo ez baditu eskatutako baldintzak egiaztatu, ez da izendatua izango eta berekin izandako ekintza guztiak baliogabetu egingo dira. Kasu honetan, bigarren lekuan dagoen pertsonaren alde egingo da proposamena.

*Hamaikagarrena. Praktiketako funtzionario izendatzea.*

Aukeratutako hautagaiak prozesu honetan oinarrien hirugarren atalean ezarritako parte hartzeko baldintzak bete dituela behar bezala egiaztatu eta gero, praktiketako funtzionario izango da izendatua Alkate Dekretuz. Bere izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Praktiketako funtzionario izendapenak hautaketa prozedura gainditzearekin du lotura, soil soilik funtzionarioa prestakuntza ikastarora sartuko den unetik eta karrerako funtzionario gisa izendapena egin bitartean edota bere kanporatzea erabaki bitartean.

*Hamabigarrena. Prestakuntza edo formazio ikastaroa eta praktikaldia.*

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia derrigorrezkoak eta baztertzaileak dira, banaka kontuan hartuta.

Gainditu ezean, automatikoki kanporatua izango da hautaketa-prozesutik hautagaia, eta ondorioz, «udaltzaingoaren agente lehenaren» plazarako balizko eskubideak galtzea eragingo du.

— Titulaciones de doctorado: 1 punto.

— Licenciatura, grado o titulaciones equivalentes: 1 punto.

— Diplomatura o titulaciones equivalentes: 0,5 puntos.

— Título de técnico superior (siempre que no haya sido el alegado para su participación): 0,25 puntos.

*Novena. Propuesta del tribunal.*

La calificación final de cada aspirante, que se obtendrá de la suma de la puntuación obtenida en méritos y pruebas (siempre que se hayan superado), determinará el orden de prelación.

Una vez finalizada la calificación de los ejercicios y la valoración de los méritos, el Tribunal Calificador publicará la relación de las personas concursantes –por orden de puntuación total– en el Tablón de Anuncios y en la página web municipal, concediendo un plazo de cinco días hábiles para presentar reclamaciones ante el Tribunal.

Una vez realizada la calificación de los ejercicios y la valoración de los méritos, los resultados definitivos se aprobarán por acuerdo del Tribunal Calificador y se publicarán en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en su página web, conforme al orden de puntuación total de todas las personas concursantes, abriéndose a continuación un plazo de 5 días hábiles para la interposición de reclamaciones ante el Tribunal.

*Décima. Resolución de reclamaciones y presentación de documentación.*

En caso de no existir reclamaciones, los resultados publicados se considerarán definitivos. Si hubiera reclamaciones, las mismas serán resueltas y publicadas por el Tribunal, que a continuación elevará el acta a la Alcaldía-Presidencia, proponiendo el nombramiento como funcionario en prácticas de la persona que ocupe el primer puesto. Además, en la misma acta figurarán, por orden de puntuación, todas las personas aspirantes que hayan superado todos los ejercicios eliminatorios.

No obstante, antes del nombramiento, la persona que ocupe el primer lugar deberá presentar en el departamento de personal del ayuntamiento, en un plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación de los resultados definitivos, la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos exigidos para la participación en el proceso, tal y como se indica en la base tercera.

En el caso de que la persona propuesta no haya aportado la documentación o no haya acreditado los requisitos exigidos durante el citado periodo, salvo caso de fuerza mayor, no tendrá lugar el nombramiento y se anularán todas las acciones que se hubieran producido. En este caso, la propuesta se hará a favor de la persona que ocupe el segundo lugar.

*Undécima. Nombramiento como funcionario/a en prácticas.*

Una vez que la persona seleccionada acredite fehacientemente el cumplimiento de los requisitos establecidos en la base tercera para la participación en este proceso, será nombrada funcionaria en prácticas mediante Decreto de Alcaldía, y dicho nombramiento será publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

El nombramiento de funcionario en prácticas está vinculado a la superación del procedimiento selectivo únicamente desde el momento de la incorporación del funcionario al curso de formación y hasta su nombramiento como funcionario de carrera o hasta su exclusión.

*Duodécima. Curso de formación y periodo de prácticas.*

El curso de formación y el periodo de prácticas son obligatorios y eliminatorios, individualmente considerados.

En caso de no superarlos, la persona aspirante será automáticamente excluida del proceso de selección, lo que implicará, en consecuencia, la pérdida de los derechos que tuviere respecto a la plaza de «agente primero de la Policía Municipal».

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia ezin dira aldi berean gauzatu. Iraupena gehienez 30 hilabetekoa izango da.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia antolatu eta garatzea, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiari dagokio baita bere azken ebaluazioa ere.

Hautaketa-prozesu honen aldi hau dela eta, kontuan izango dira 1/2020 Legegintzako Dekretuak (uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Testu Bateginak onartzen duena) ezarritakoa eta 315/1994 Dekretuak (Euskadiko poliziaren hautaketa eta formazioaren Erregelamenduak) araututakoa.

*Hamahirugarrena. Prestakuntza edo formazio ikastaroa.*

Nahitaezkoa eta baztertzailea den prestakuntza ikastaroa, izaera selektiboa duen ikastaro akademikoa da eta aurrez zehaztutako ikasketa plana eta iraupena izango du. Hasiera Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak zehaztuko du ebazpen bidez.

Ikastaroaren azken kalifikazioa udal web orrian eta iragarki oholean iragarriko da.

*Hamalaugarrena. Praktikaldia.*

Praktikaldia derrigorrezkoa eta baztertzailea da.

Praktikaldia abiatu aurretik, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiako zuzendaritza orokorrak ebazpen bidez zera ezarriko du: praktikaldiaren iraupena, balorazio sistemak eta prozedurak eta praktikaldia nola gaindituko den. Ebazpen hori Euskadiko polizia akademia zein Bergarako Udaleko web orrian eta iragarki oholean argitaratuko da.

Praktikaldiaren azken kalifikazioa Gai/Ez Gai izango da eta udalaren zein Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiako web orrian eta iragarki oholean argitaratuko da. Praktikaldiaren arduradunak ezarritako kalifikazio hori loteslea edo binkulantea izango da bai epaimahai kalifikatzailearentzat bai karrerako funtzionario izendapena egiteko eskuduntza duen Bergarako udal organoarentzat.

*Hamabosgarrena. Karrerako funtzionario izendatzea.*

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia gainditu ondoren, Bergarako Udaleko karrerako funtzionario izendatuko da hautagaia. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da izendapen hori. Izendatu ondoren, plaza jabetzan hartu beharko du 10 laneguneko epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Gainerakoan, ordura arte gauzatutako jardun guztiak eraginik gabekoak izango dira eta karrerako funtzionario izateko egoki dakizkiokeen eskubideak galduko ditu.

Prestakuntza ikastaroa edota praktikaldia gainditzen ez badu, kanporatua izango da hautaketa prozesutik.

*Hamaseigarrena. Araudi ezargarria, gorabeherak eta aurkatzeak.*

Udaltzaingoko lanpostuak hornitzeko hautaketa-prozesuen deialdietan honako legeria aplikatuko da:

— Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa.

— Abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzkoa.

— Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legea.

— 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzeari buruzkoa.

El curso de formación y el periodo de prácticas no se pueden realizar simultáneamente. La duración máxima será de 30 meses.

La organización y desarrollo del curso de formación y del periodo de prácticas corresponde a la Academia Vasca de Policía y Emergencias, así como también su evaluación final.

En relación con esta fase del proceso de selección, se estará a lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2020 (de 22 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco) y a lo regulado en el Decreto 315/1994 (Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco).

*Decimotercera. Curso de formación.*

El curso de formación, obligatorio y eliminatorio, es un curso académico de carácter selectivo, con un plan de estudios y una duración predeterminados, cuyo inicio se establecerá mediante resolución de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

La calificación final del curso se anunciará en la página web municipal y en el tablón de anuncios.

*Decimocuarta. Período de prácticas.*

El periodo de prácticas es de carácter obligatorio y eliminatorio.

Con carácter previo al inicio del período de prácticas, la Dirección General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias establecerá, mediante resolución, la duración del mismo, los sistemas y procedimientos de valoración y la forma de superarlo. Dicha resolución se publicará tanto en la Academia de Policía del País Vasco como en la página web del Ayuntamiento de Bergara y en el tablón de anuncios.

La calificación final del periodo de prácticas será «Apto/No Apto» y se publicará en la página web y en el tablón de anuncios del ayuntamiento y de la Academia Vasca de Policía y Emergencias. La calificación establecida por la persona responsable del periodo de prácticas será vinculante tanto para el tribunal calificador como para el órgano municipal de Bergara competente para el nombramiento de funcionarios de carrera.

*Decimoquinta. Nombramiento como funcionario/a de carrera.*

Una vez superado el curso de formación y el periodo de prácticas, la persona candidata será nombrada funcionaria de carrera del Ayuntamiento de Bergara, y dicho nombramiento será publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Tras el nombramiento, deberá tomar posesión de la plaza en el plazo de 10 días hábiles, salvo causa de fuerza mayor. En caso contrario, todas las actuaciones realizadas hasta la fecha quedarán sin efecto y perderá los derechos que le pudieran corresponder para el acceso a la condición de funcionario de carrera.

Si no supera el curso de formación o el periodo de prácticas, la persona aspirante será excluida del proceso de selección.

*Decimosexta. Normativa aplicable, incidencias e impugnaciones.*

En las convocatorias de procesos selectivos para la provisión de puestos de Policía Municipal se aplicará la siguiente legislación:

— Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

— Ley 30/1984, de 2 de agosto, sobre Medidas para la Reforma de la Función Pública.

— Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

— Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, por el que se establecen las reglas básicas y los programas mínimos a que debe ajustarse el procedimiento de selección de los funcionarios de Administración Local.

EK\CV GAO-I-2022-05042

— Euskadiko Poliziaren Legearen Testu Bateratua, uztailaren 22ko 1/2020 Dekretu Legegileak onartua.

— 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duena.

— Ordezko gisa, Estatuko Administrazio Orokorrean sartzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanpostuak bete eta lanbide sustapenenerako Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak onartua.

— Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legea, azaroaren 24koa.

— 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

— 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakitemaila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.

— 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

— 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

— Emakume eta gizonen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

— Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.

— Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestu eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

— Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

— Toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak onartua.

— Euskadiko Toki Entitateen apirilaren 7ko 2/2016 Legea.

— Oinarri orokor hauek.

— Deialdi bakoitzerako onartzen diren oinarri espezifikoak.

Indarrean den arloko araudia, orokorrean, hornitu beharreko lanpostuaren Gorputz eta Eskala edozein dela.

I. ERANSKINA

GAITEGIA

1. Udal Administrazioa: 7/1985 Legea. Udalerria. Xedapen orokorrak. Udal antolaketa. Derrigorrezko organoak eta organo osagarriak.
2. Euskadiko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legea: Araudiaren helburua eta xedea, printzipio orokorrak, II. tituluko IV. kapitulua (Administrazio arauetan eta jardueretan berdintasuna sustatzeko neurriak), III. tituluko VII. kapitulua (Emakumeen aurkako indarkeria matxista).
3. Estatuko 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa: IV. eta V. tituluak.

— Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio.

— Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco.

— Subsidiariamente, el Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de Ingreso del Personal al servicio de la Administración general del Estado y de Provisión de Puestos de Trabajo y Promoción Profesional de los Funcionarios Civiles de la Administración General del Estado.

— Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

— Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

— Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

— Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

— Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

— Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

— Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

— Ley 2/2004 del Parlamento Vasco, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

— Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

— Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local.

— Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

— Las presentes bases generales.

— Las bases específicas aprobadas para cada convocatoria.

La normativa sectorial vigente, con carácter general, cualquiera que sea el Cuerpo y Escala del puesto a proveer.

ANEXO I

TEMARIO

1. Administración Municipal: Ley 7/1985. El Municipio. Disposiciones generales. Organización municipal. Órganos necesarios y órganos complementarios.
2. Ley 4/2005, de 18 de febrero, de la CAV, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres: Objeto y objetivo de la norma, principios generales, Título II - Capítulo IV (Medidas para impulsar la igualdad en las normas y actuaciones administrativas), Título III – Capítulo VII (Violencia machista contra las mujeres).
3. Ley Orgánica 1/2004, estatal, de 28 de diciembre, de Medidas de protección integral contra la violencia de género: Títulos IV y V.

EK\CV GAO-I-2022-05042

4. Hizkuntzaren erabilera zuzena: Komunikazioa eta zerbitzuaren kalitatea: Komunikazio-prozesua. Elementuak. Oztopoak komunikazioan. Administrazio-dokumentuak hobeto idazteko jarraibideak. Administrazio-dokumentuen motak. Administrazio-dokumentuen oinarrizko egitura. Hizkuntza errespetuzkoa eta ez-sexista.
5. 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena. I. tituluko IV. kapitulua. II. tituluko I. eta III. kapituluak. IV. tituluko X. kapitulua.
6. 15/2012 Legea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa: III. titulua eta IV. titulua.
7. 320/1994 Errege Dekretu Legegilea, Trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren zigor prozedura. Artikulu hauek: 1etik 10era, 14, 18, 19 eta 20.
8. 8/2004 Errege Dekretu Legegilea, Motordun ibilgailuen zirkulaziorako erantzukizun zibilari eta aseguruari buruzko legearen Testu Bategina: I. tituluko I. kapitulua. I. tituluko II. kapituluko I. atala.
9. 10/2015 Legea, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. III. titulua (III. kapitulua) eta IV. titulua.
10. 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea Garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
11. Animalia arriskutsuak: Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko 50/1999 Legea. Txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 Dekretua.
12. Herritarren arreta eta komunikazioa. Herritarren kexak kudeatu. Hizkera administratiboaren erabilera egokia.
13. Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa (Emakunde).
14. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa: II., III. eta IV. tituluak.
15. Eraikinak hustea: Autobabeserako planen hastapenak. Gertakariari erantzutea. Gutxieneko jokabide-jarraibideak. Okupazio handiko eraikinak. Larrialdi Plana.
16. Lehen laguntzak: lesioen lehen eta bigarren mailako balorazioa. Bihotz-biriketako bizkortzea. Aire-bideen buxadura. Odoljarioak. Erreduren arreta orokorra.
17. Gardentasunaren 19/2013 Legea: I. titulua, II. eta III. kapituluak.
18. Bergarako Udalean indarrean dauden ordenantzak eta araudia.

4. Uso lingüístico correcto: Comunicación y calidad del servicio: Proceso comunicativo. Elementos. Obstáculos en la comunicación. Pautas para una mejor redacción de los documentos administrativos. Tipos de documentos administrativos. Estructura básica de los documentos administrativos. Lenguaje respetuoso y no sexista.
5. Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco. Título I, Capítulo IV. Título II, Capítulos I y III. Título IV, Capítulo X.
6. Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi: Título III y Título IV.
7. Real Decreto Legislativo 320/1994, Procedimiento sancionador en materia de tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial. Artículos 1 a 10, 14, 18, 19 y 20.
8. Real Decreto Legislativo 8/2004, Texto Refundido de la ley sobre de responsabilidad civil y seguro en la circulación de vehículos a motor: Título I, Capítulo I. Título I, Capítulo II, Sección I.
9. Ley 10/2015, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas. Título III (Capítulo III) y Título IV.
10. Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de Desarrollo de la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.
11. Animales peligrosos: Ley 50/1999, sobre tenencia de animales potencialmente peligrosos. Decreto 101/2004, sobre tenencia de animales de la especie canina.
12. Atención y comunicación ciudadana. Gestión de quejas ciudadanas. Uso adecuado del lenguaje administrativo.
13. II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención de mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual (Emakunde).
14. Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales. Títulos II, III y IV.
15. Evacuación de edificios: Introducción a los planes de autoprotección. Respuesta al incidente. Pautas mínimas de conducta. Edificios de gran ocupación. Plan de Emergencia.
16. Primeros auxilios: Valoración primaria y secundaria de las lesiones. Reanimación cardiopulmonar. Obstrucción de las vías aéreas. Hemorragias. Atención general a quemaduras.
17. Ley 19/2013, de Transparencia: Título I, Capítulos II y III.
18. Ordenanzas y normativa en vigor en el Ayuntamiento de Bergara.

Bergarako Udala

## ESKABIDEA, lan eskaintzan partehartzeko
-
## SOLICITUD para participar en oferta de empleo

*Esp. zk.a: 2022LAAU0013*

**LANPOSTUAren izena eta deialdiaren ezaugarriak** */ Denominación del PUESTO DE TRABAJO y características de la convocatoria*

| | |
|---|---|
| ***Agente lehena***<br>*Agente primero/a* | Barne promozioa<br>*Promoción interna* |

**Frogetan erabili nahi duen hizkuntza** */ Lengua en que desea realizar las pruebas*

*Euskara / Euskera* ☐ *Gaztelera / Castellano* ☐

**ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA** */ IDENTIFICACIÓN DE LA PERSONA SOLICITANTE*

| | | |
|---|---|---|
| **Izena eta abizenak- Enpresaren izena** / *Nombre y apellidos – Razón social* | | **NAN - IFZ** */ DNI – CIF* |
| **Helbidea /** *Domicilio* | **Herria /** *Población* | **P.K.** /*C.P.* |
| **Telefonoa(k)** | **Helbide elektronikoa** */ e-mail* | |

**DEIALDIRAKO ZIURTATZEN DUEN TITULAZIOA** */ TITULACION QUE ACREDITA PARA TOMAR PARTE EN LA CONVOCATORIA*

| |
|---|
| |
| |

**IKASKETA OSAGARRIAK** */ FORMACIÓN COMPLEMENTARIA*

| **Formazioaren izenburua**<br>*/ Título de la formación.* | **Zertaz** (ziurtagiriaren azalpen laburra<br>*/ Objeto ( Descripcion según certificado)* | **Iraupena ordutan** (agirian jasotakoa)<br>*/ Duración en horas (según certificado)* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

**LANEKO ESPERIENTZIA** */ EXPERIENCIA LABORAL*

| **Enpresaren izena**<br>*Nombre de la empresa* | **Kontratuaren iraupena**<br>*Duración del contrato* | **Betetako lanpostua**<br>*Puesto de trabajo ocupado* |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |
| | | |

**Sinatzaileak**, deialdiaren oinarrietan jasotako eskakizun guztiak betetzen dituela adierazten du eta, hortaz, hautaketa prozesuan onartua izatea eskatzen du.

*La persona firmante, mediante la firma de esta instancia, declara cumplir todas las condiciones exigidas en las bases y, en consecuencia, solicita ser admitida en dicho proceso de selección.*

Era berean adierazten du Bergarako Udala
☐ **BAIMENTZEN DUELA** / ☐ **EZ DUELA BAIMENTZEN**
bere datu pertsonalak beste Herri Administrazio batzuei emateko, betiere eskaera honen bidez eskuratu nahi duen lanpostuaren antzekoetan sor dakizkiekeen aldi baterako langileak kontratatzeko beharrei erantzuteko.

Bestalde, ondorengo honen jakitun geratzen da:

- Eskaera honetako datu pertsonalak Bergarako Udalaren ardurapean tratatuko direla, eskaera izapidetu ahal

*Igualmente declara que*
☐ ***SÍ AUTORIZA*** / ☐ ***NO AUTORIZA***
*al Ayuntamiento de Bergara para que facilite sus datos personales a otras Administraciones Públicas que así lo soliciten, siempre al objeto de cubrir necesidades de contratación de personal no permanente en puestos similares a los que opta mediante esta instancia.*
*Además, quedo enterado/a de lo siguiente:*

- *Los datos personales de esta solicitud serán tratados bajo la responsabilidad del Ayuntamiento de Bergara,*

EK\CV GAO-I-2022-05042

izateko. Badakit indarrean dagoen araudiak aitortutako eskubideak erabili ahal izango ditudala helbide honetara zuzenduta: Bergarako Udala, San Martin Agirre Plaza 1, 20570 Bergara. Halaber, jakitun naiz informazio osagarria eskuragarri dagoela Datuen Tratamendu Jardueren Erregistroan (www.bergara.eus/RAT). Tratamendua: 0602

*con el fin de tramitar la misma. Podrán ejercitarse los derechos amparados por la normativa vigente, dirigiéndose a la siguiente dirección: Bergarako Udala, San Martin Agirre Plaza 1, 20570 Bergara. La información complementaria se encuentra recogida en el Registro de Actividades de Tratamiento de Datos (www.bergara.eus/RAT). Tratamiento: 0602*

**Lekua, data eta sinadura** */ Lugar, fecha y firma*

EK\CV GAO-I-2022-05042